



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
HEZKUNTZA BATZORDEA
COMISIÓN DE EDUCACIÓN

Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko
batzordeburuaren txosten-proposamena:
Euskal hezkuntzaren eraldaketarako oinarrien
txostenaren zirriborria

ZIRIBORRIA



SARRERA

Euskal hezkuntzaren ekintza eraldatzailea

Zergatik lege bat?

EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN BALIO, PRINTZPIO ETAK HELBURUAK

Balioak

Printzipioak

Helburuak

HEZKUNTZARAKO ETAK BIZIKIDETZA POSITIBORAKO ESKUBIDEA

Bizikidetza eta aniztasuna

Plangintza eta hezkuntza sistemarako sarbidea

Doakotasunaren bermeak

Derrigorrezko eta doako irakaskuntzak

LIDERGO BERRIAK ETAK GOBERNANTZA-EREDUAK

Hezkuntza-komunitatea

Ikastetxeetako zuzendaritzen ahalduntzea eta lidergo pedagogikoa

Ikastetxeen lankidetza-gobernantza

Programa-kontratua

Administrazioen arteko hezkuntza-kogobernantza

Gizarte- eta hezkuntza-programak: administrazioen erantzunkidetasuna

Tokiko Hezkuntza Kontseiluak

Euskadiko Eskola Kontseilua

Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua

IKASLE ANIZTUNAK HELBURU: HIZKUNTZEN ERABILERA ETAK IKASKUNTZA

Euskal Hezkuntza Sistemaren hizkuntza-eredu eleaniztuna

Euskara, sistema eleaniztunaren ardatza

Hezkuntza-eredu eleaniztunaren helburuak

Hizkuntza proiektuak eta ikuspegi metodologikoa

Hizkuntzen tratamendu integrala eta integratua. Metodologiak

Irakasleen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko prestakuntza

Prestakuntza metodologikoa hizkuntzen irakaskuntzan

IKASTEKO ETAK ETENGABE HOBETZEKO PALANKAK

Hezkuntzaren eraldaketa eta hobekuntza bi ardatzetan: ekitatea eta bikaintasuna

Euskararen Ikaskuntzarako Institutua



Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa

Ikuskaritza

Eraldaketa eta inklusiorako digitalizazioa

Irakaskuntza-funtzioaren paradigma. Inguruneak eta irakatsi eta ikasteko prozesuak berriz diseinatzea

Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza

Prospekzioa

Irakas-sistemaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Euskal Erakundea

LANKIDETZAKO PRESTAKUNTZA BERRI BATERANTZ

Hasierako prestakuntza

Etengabeko prestakuntza

ZIRRIBORROA



Marina Garcés: "Ikaskuntza gizarte-bizikidetzaren osoaren humusa da"

Jean Piaget: "Kalitatezko hezkuntza inklusiborik gabe eta bizitza osoan ikasteko aukerarik gabe, herrialdeek ez dute lortuko milioika atzean uzten duten pobrezia-zikloa haustea"

Zer ikusi, ha ikasi (euskal esaera zaharra)

SARRERA

Euskal hezkuntzaren ekintza eraldatzailea

XXI. mendeko euskal gizartea, Europako beste hainbat komunitateren antzera, eraldatze prozesu betean murgilduta dabil, etengabeko aldaketa eta ziurgabetasuna dituela ezaugarri nagusiak. Egoera honetan, gizarte osorako oinarritzko adostasun-eragile izateko ahala du hezkuntzak. Izan ere, Euskal Hezkuntzak bere historia osoan erakutsi duen erresilientzia izan da bere indargune nagusietako bat.

Euskal Hezkuntzari zorrotz begiratzeko unea da. Askok da egin dena baina asko da, era berean, egiteko daukana. Egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuteko beharrezkoak ditu: (i) berrikuntza-kulturaz jabetzea; (ii) hezkuntza-prozesuari aplikatu dakizkikeen ekarpen zientifikoak aintzat hartzea; (iii) ikusmiran izatea ikaskuntzaren subjektu aktibo diren ikasle ahaldunduak, hala nola ikasleak gidatzen eta laguntzen dituzten irakasleak eta familiak; (iv) hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eskola-antolaketa eraikitzea, euskal ingurune soziokultural eta instituzionalarekin elkarrekintzan kudeatzen duten ikastetxe ahaldunduekin; (v) gobernantza-eredu berria ezartzea, erantzunkidea, deszentralizatua eta udalerrri-, lurralde- eta autonomia-mailan egituratua.

Ordua da, beraz, ohiko inertziak eta konfort-markoak utzi, hezkuntzaren funtsezko arazoei aurre egin eta irtenbide justuak eta gizartea asebeteko duten bideak bilatzeko.

Gizarte ongizatea eta kohesioa ondasun immaterialen eta ekonomikoen albokoak dira. Hezkuntzak berebiziko garrantzia du bi ondasun horien zaintzan. Gainera, ondasun kolektiboek eragina izan dezakete nortasunen sorreran. Gure herrialdean talde-nortasun desberdinak dituzten pertsonak bizi dira, baita mestizoak ere, eta hezkuntza-sistemak nortasun horiek errespetatu behar ditu, arreta berezia eskainiz euskal kulturari.

Ekitatea errazten duen hezkuntza humanistaren alde egiten du euskal hezkuntzak, alderdi formalak eta ez-formalak integratzen dituen, autoestimua pertsonala eta kolektiboa bultzatzen dituen, norberarengan eta gainerakoengan konfiantza lantzen duena, korikaskuntza praktikatu eta garapen pertsonal, profesional eta sozialarekin konprometitu dagoen irakasleriarekin batera sistema ebaluatzen duena.



Era horretan, eskola-antolamendua bizikidetz-espazioa bilakatzen da eta gizarte-inklusionarako gaurko eta etorkizuneko oinarritzko pieza. Horixe da euskal hezkuntzaren ekintza eraldatzailearen erronka berria.

Zergatik lege bat?

Euskal hezkuntza eta bere etorkizunaren gaineko barne-hausnarketa sakonean murgilduta dabilta zenbait profesional eta hezkuntza-aditu, urteetan bildutako ezagutza, esperientzia eta konpromisoa oinarritzat hartuta. Eragile guztien engaiamendua bilduz lortuko da etorkizuneko Euskal Hezkuntza Sistema aurrerakoi, bateratzaile, berdintzaile, arrakastatsu eta kalitatezkoa.

Gure hezkuntza sistemaren ezaugarrietako bat da erreferentziazko adierazleen multzo bat duela, dela eskolatzean, eskola-uzte tasan, goi-mailako hezkuntza-maila nabarmenean edo egokitasunean edo eskola-uztean, erakusten digutenak hezkuntza sistema ona dugula. Era berean, beste erronka batzuei ere erantzun behar zaie, hala nola gero eta askotarikoagoa eta zorrotzagoa den gizarte baten eskaerei, edo egungo erronka demografikoen eta aldaketa teknologikoen ondoriozkoei. Badakigu hezkuntza-hobekuntzak epe ertain eta luzera direla hautemangarriak; beraz, denbora eta egonkortasuna behar dira, eta, aldi berean, hurrengo aldaketetara egokitzeko malgutasuna eta gaitasuna.

Lege berri batek, euskal hezkuntza sistemari beharrezko legegintza-maila emateaz gain, hezkuntza sistemaren eraikuntza prozesuaren garai berri bat ireki behar dio, modu gradualean eta egingarrian euskal komunitatearen behar eta gaitasunen arabera hezkuntza sistema bat eratzeko. Asmo eratzailerak aitortzen diogu lege honi, hezkuntza-sistemaren konfigurazio berri baterako bidea arautu asmo baitu. Hargatik aitortzen diogu zentzu estrategikoa.

Laburbilduz,

XXI. mendeko Euskal Hezkuntzaren aldeko legea behar dugu, gure herriaren bilakaera historikoari eta euskal gizartearen aukera-aberastasunari justizia egingo diona, beti ere balio publikoen marko berriari eusten, zerbitzu publikoa eskaintzen dutenek eguneratuko dituzten eskubideak eta betebeharrak birpentsatu eta birformulatuta izaera publiko horri dagokion eran.

Gure herriaren idiosinkrasia oinarri, administrazioaren eta ikastetxeen arteko harremanak birformulatuko ditugu, beti ere, hezkuntza-deszentralizazioa, toki-erakundearen protagonismo zabalagoa, familien partaidetzaren sustapena eta hezkuntza formala eta ez-formalaren arteko elkarlana direlarik ortzi-muga. Lege berriak ausardiaz eta ilusioz erraztu behar du bide hori, gizarte osoaren eta erakunde guztien konplizitatea bilatuz.



EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN BALIO, PRINTZIOPIO ETA HELBURUAK

Balioak

Hezkuntza da norbere nortasuna garatzen duen prozesua, bertan eraikitzen dira ingurune natural, sozial eta kulturalaren gaineko ezagutza eta ingurune horretan gizarte-harremanek ardatzen dituzten balioak. Horrela, gure identitateaz, gizarte baten parte izateak eta gizarte hori eraldatuz hobetzen laguntzeak sortzen dituzten eskubideez eta betebeharez jabetzen gara.

Hezkuntzak prestatzen gaitu elkarrekin bizitzeko, bizi garen gizartearen parte izateko eta hura hobetzen laguntzeko. Hauxe da hezkuntza-sistemaren bigarren ardatza. Ikastetxeetan ikasten dugu elkarrizketan jarduten, gatazkak zentzuz konpontzen eta bizitza osoan erabakigarria izango dugun demokraziarako hezkuntza eraikitzen. Gizartean bizitzea ahalbidetzen duten balioak eta esperientziak transmitituko dituen eskola nahi dugu, hala nola balio zibikoak, publikoarekiko eta komunarekiko ardua edo naturaren zaintza. Euskal hezkuntza sistemak konpromiso berezia du euskararekin, bere kulturarekin eta honen transmisioarekin. Ikastetxea da identitate irekiak eraikitzeko espazioa, norberea unibertsalarekin artikulatzen ikasten den heinean. Eskolan ikasten dugu gure etorkizun pertsonal eta kolektiboa eraikitzen, bertan ikasten baitugu beste identitate-esperientzia batzuk ere kontuan hartzen, pluralismoaren eta berdintasunaren balioa aurkitzen dugun espazioa baita.

Jakintza da Euskal Hezkuntza Sistemaren hirugarren ardatza. Eskola da gizakiek munduan bizitzeko duten lanabes handia, bereziki XXI. mende honetan pentsamenduari erronka handiak ezartzen baitizkio. Ez dago gizarte heldurik jakintzaren eta haren hazkunde eta hedapenez arduratzen direnen balioa onartzen ez duenik. Ezagutza eta haren ondorioak –arrazoitutako argudiorako gaitasuna, gertakari eta ebidentzien errespetua, ziurtasun ororen mugen kontzientzia, ikas-prozesuaren beraren kontzientzia hartzea– dira gizakiari bere garapenean lagundu dioten balioak.

Gure ikasgeletatik aterako diren belaunaldi berriek aurkikuntza zoragarriak egin ahal izango dituzte jakintzaren abenturaren eskutik. Eta gizartearen eraldaketarako protagonista horiek, inolako asmo elitistarik gabe lortu ahal izango dute euskal gizarteak barneratu ditzan kultura zientifiko zabala, teknologiarekiko estimua eta bere inplikazio etiko, sozial eta ingurumenarekin loturikoei buruz gogoeta egiteko gaitasun kolektiboa.

Ikasleak erdigunean dituen Euskal Hezkuntza Sistemaren ortzi-mugak hiru ezaugarri ditu:

- **Pertsona ona.** (i) Ongizate fisikoa, emozionala eta mentala. (ii) Autonomia, autoerregulazioa, autoestimua, erresilientzia, erantzukizuna, auto-zaintza eta elkarren zaintza. (iii) Bidezkoa, solidarioa eta berdintasunarekin eta iraunkortasunarekin konprometitua
- **Herritar ona.** (i) Komunitateko kide izatearen sentimendua, gizarte-konpromisoa, parte-hartzea, esparru publikoan jarduteko gaitasuna (hitz egitea, entzutea, argudiatzea, zer esan eta esaten jakitea). (ii) Adimen kolektiboa, herritartasun kritikoa...



- **Profesional ona.** (i) Jakin-mina, sormena eta autoerregulazioa. (ii) ikasten ikastea, orain ezagutzen ez diren lanbide berriei aurre egiteko

Printzipioak

Euskal Hezkuntza Sistemak ikasle guztiak kalitatezko eta bikaintasunezko hezkuntza izatearen alde eginez, bizikidetzaren positiboa, aukera-berdintasuna, aniztasunarekiko eta sinesmen-askatasunarekiko errespetua zainduko ditu, printzipio horiek guztiak ikasle bakoitzarengandik hezkuntza-komunitatera hedatzen joan daitezela.

Eredu honen garapenak giltzarri bat du: hezkuntza-erakundearen autonomia. Eta honek esan nahi du, hezkuntza proiektuek behar duten lidergo pedagogikoaren autonomia eta hezkuntza proiektua kudeatu eta hezkuntza komunitatearen parte-hartze demokratikoa ahalbidetzeko autonomia.

Helburuak

Hezkuntzaren helburu nagusia da hezkuntza-eskubidea egiazki gauzatzen dela bermatzea, askotariko ikaslearen garapen integrala eta ikaskuntza malgua bultzatuz, zeregin hori balioetan eta bizikidetzaren positiboan finkatuz, eta kalitatezko eta bikaintasunezko hezkuntza-aukerak bermatuz.

Hezkuntzak beharrezko ezagutzak eskaini behar dizkie ikasleei irizpide propioa eskuratzen laguntzeko, eta, horrela, ondo oinarritutako erabaki libreak hartzeko. Eta ezagutza sistematizatuaren iturri nagusia denez gero, oinarritzko tresna izan behar du ikusmira kritikoa duten eta herritartasuna erabat gauzatzeko gaitasuna duten pertsonak garatzeko; horrexek bihurtzen du ezinbestekoa demokratikoa den gizarte baterako. Jasotako informazioak errealitatearekin kontrastatuz eta apaltasun epistemikoaz jokatuz lantzen da ikusmira kritikoa, berdina diren pertsonen osaturik dagoen gizarte batean, inork ez baitu azken hitza.

Hezkuntzak gaitasun nahikoak eman behar ditu lanbide batean jarduteko eta, bizi-proiektu autonomo bat garatu ahal izateko. Ikuspegi kolektibotik begiratuta, gizartearen funtzionamendu egokirako eta etorkizunean behar diren baliabideak emateko gai izango den garapen ekonomiko sendorako giltzarria da prestakuntza, gero eta garrantzi handiagoa baitu gure gizartean pertsona kualifikatu gehiago eta kualifikatuagoak izatea.

Euskal Hezkuntza Sistemak konpromisoa hartuko du, lege berriaren bidez, subjektu aktibo gisa ahaldundutako ikasleak hezteko, komunitatean ikasten duten ikasleak, giza erronkei eta gizarte-, kultura- eta ingurumen-erronkei erantzuna emanez, eginkizun horretan erantzukizuna partekatzen duten familia eta irakasleekin batera.

Euskal Hezkuntza Sistemak ikaslearen sarbidea eta onarpena bermatzeko mekanismoak zainduko ditu, berauek baitira eskolazte inklusibo eta orekatua lortzeko euskarriak.

Euskal Hezkuntza Sistemak irakasle kualifikatu eta ahaldunduak izango ditu, eta prestigioa emango die irakasle-lanari eta haien aintzatespen sozialari, ikasteko modu berriak dituzten ikasleei erantzun eraginkorrak emate aldera. Eta ebaluazioaren kultura



sendotuko du. Era berean, sormena, talentua, ekimen pertsonala eta espiritu ekintzailea eta kooperatiboa sustatuko dituen kultura zientifikoa eta humanitateak jasoko dituen hezkuntza-eredua lehenetsiko du.

HEZKUNTZARAKO ETA BIZIKIDETZA POSITIBORAKO ESKUBIDEA

Oinarritzko giza eskubidea da hezkuntza eta berariaz aitortuta dago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (1948) zein nazioarteko beste arau-tresna askotan. 2030erako Munduko Hezkuntza Agendaren printzipio gidarietako bat da hezkuntzarako eskubidea, bai eta nazioarteko komunitateak onartutako 4. Garapen Iraunkorraren Helburua (4. GIH) ere giza eskubideak oinarri hartuta, hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzeko eta guztiontzat bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzeko helburuz formulatzen dena.

Euskal Hezkuntza Sistemak aukera-berdintasuna eta sarbide unibertsala bermatuko ditu eta kalitatezko hezkuntza jasangarria lortzeko oinarriak ezarriko ditu. Eusko Jaurlaritzari dagokio guztientzako hezkuntza arrakastatsua ahalbidetzeko neurri politiko zein juridikoak betearaztea, baita ere sistemaren politika eta estrategien aplikazio eta jarraipen eraginkorrenak gauzatzea.

Bizikidetza eta aniztasuna

Bizikidetza da etorkizuneko edozein proiektu jasangarriren ardatza. Hiru bizikidetza-maila ditugu: Gizarte anitz eta askotariko bateko bizikidetza; hezkuntza-sareen arteko bizikidetza eta eskolako bizikidetza.

Euskal komunitateak eskola inklusiboaren alde egin duen apustuaren ondorioz, baliabide berariazkoak garatu dira. Esaterako, Europan eskola goiz uzten dutenen tasa txikienetako bat du Euskadik (% 6,5), eta goi-mailako hezkuntza duten ikasleen tasa handienetako bat (% 59,6). Era berean, eskolatze goiztiarreko tasarik altuena duen autonomia-erkidegoetako bat da: haurren % 92,3 bi urteko geletan eskolatuta daude, eta % 99 hiru urteko geletan.

Halere, gai honi ez zaio beti heldu beharrezkoa duen ikuspegi transbertsalez eta integrazleaz. Arazo konplexua da, eskolak soilik ezin gainditu dezakeena, baina badira hezkuntza alorrean hobetu beharrekoak: ikasle etorkinak, gutxiengo etnikoetakoak, ikasteko zailtasunekin lotutako premiak dituztenak, gaitasun handikoak eta genero- edo sexu-bazterkeria arriskuan bizi direnak, besteak beste.

Erronka honek esku-hartze komunitarioa eskatzen du, eremu bakoitzeko ikastetxeen eta administrazio publikoen arteko lankidetzazko esku-hartzea, alegia; beti ere erakunde bakoitzaren eskumenen errespetuan eta familiek ikastetxea aukeratzeko askatasuna errespetatuz, desorekak gainditzeko neurri eraginkorrak adostuz eta berdintasun balditzetan eskolatze aukerak bermatuz.

Egungo eskolatze-eredua eraldatu eta ikasle kalteberen kontzentrazioak ekiditeko ezinbestekoa da barruti/eremu bakoitzean hezkuntza-proiektu integralak garatzea. Ildo horretan ezinbestekoak dira, (i) eskola-mapa aztertu eta egokitzea, ekitateari eta



errendimenduari erreparatuz; (ii) familien kontsulta- eta partaidetza-ereduak eraginkortzea (tokiko hezkuntza kontseiluak tresna baliagarria izan daitezke); eta (iii) ikastetxeetako ikasleen arteko desorekak gainditzea hezkuntza-kalitatea bideratzeko.

Egungo euskal gizartea justizia eta kohesio sozialarekiko sentibera da oro har, euskara eta euskal kultura mundu globalean birkokatzeko beharra onartzen duena, berdintasuna eta elkarbizitarako eredu partekatua bilatzen duena, eta prestakuntza-eskaera berriek planteatzen dituzten hezkuntza-erronkez jabetua dena.

Euskal Hezkuntza Sistemak sentiberatasun horiekin koherenteak diren egokitzapen egiteko ardura bere gain hartuko du. Hartara, *Euskal Hezkuntza Zerbitzua* osatuko dute legeak ezarritako printzipio eta helburuak betetzen dituzten ikastetxeak, legeak ezartzen dizkien konpromiso eta betebeharrak beren gain hartzen dituztenak, alegia. Hezkuntzaren zerbitzu publikoa ematen duten eragileen artean eskola publikoak funtsezko rola du. Zerbitzu publikoa ematen duten eragileen izaera juridikoa administrazioaren zein beste eragile batzuen ardurapean egon, ezartzen diren baldintzak betetzean dago gakoa. Halere, argi gera bedi, familiek eragile batzuk edo besteak aukeratzea ez dela bihurtu behar gizarte-bereizketarako faktore bat.

Ikastetxeak eskubidez eta betebeharez parekide bilakatzen dira administrazioaren eta gizartearen aurrean eta orain arteko hezkuntza-tradizioen arteko konfluentzia irudikatuko da legean, XXI mendeko Euskal Hezkuntza Sistema berriaren inguruan indarrak batuz

Laburbilduz,

Jatorrizko desberdintasunak gainditzen lagunduko duen eskolaren aldeko apustua eginez, Euskal Hezkuntza Zerbitzuak baliabide publikoez sostengatzen diren ikastetxeak hartuko ditu, dena dela bere izaera juridikoa, beti ere segregazioa eta gizarte-bazterketa gainditzeko ahaleginean aktiboki jarduten duten neurrian.

Bestalde, ekitatea eta bikaintasuna txanpon beraren aldeak dira. Hezkuntza-paradigma berriak eskatzen duenari jarraiki, aldaketa nagusi bi bultzatu eta eragin behar ditu legeak. Alde batetik, gizarte-tradizio onenen pedagogiak agintzen duenez, ikaslea eta bere kompetentzietan oinarritutako heziketa da gune eta ardatz; bestetik, ikastetxea da antolakuntza-unitatea, gainerako osagai guztiak bere zerbitzura izango dituen.

Paradigma berri horrek lidergo pedagogikoan oinarritutako zuzendaritza-rola indartzea dakar, estrategia sendo baten bidez erabakiak hartzeko autonomia erabiliz eta emaitzekiko erantzukizuna bere gain hartuz. Hortaz, ezinbestekoa da irakasleen jarduna eraldatzea, beren praktikari buruzko prestakuntzatik eta hausnarketatik abiatuta, ikastetxearen proiektu estrategikoaren eta eskolarteko lankidetzaren esparruan.

Eredu eleaniztun baten aldeko apustua egiten dugu, euskara ardatz duena eta bi hizkuntza ofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batez egituratzen dena, nahiz eta jatorrizko ikasleen hizkuntzak eta kulturak presente egon. Hori guztia ikastetxe bakoitzeko



hizkuntza-proiektuan egituratuta behar da, esparru komun baten barruan. Hiru hizkuntzen tratamendu berezia emango da hizkuntza horien funtzioa eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta.

Euskal kulturaren eta hizkuntzaren ezagutzak berarekin du ikuspegi integratzaile eta inklusiboa. Beraz, euskarazko tresna pedagogikoak garai eta erronka berrietara egokituko dira eta ikastetxe guztien eskura izango dira.

Plangintza eta hezkuntza sistemarako sarbidea

Hezkuntza Sailarekin lankidetzazko hitzarmena sinatzen duten ikastetxe guztietan, irakaskuntza hauetako batzuk emango dira:

- Haur Hezkuntza.
- Lehen Hezkuntza.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- Batxilergoa.
- Oinarrizko lanbide-heziketa.
- Erdi-mailako lanbide-heziketa.
- Goi-mailako lanbide-heziketa.
- Araubide bereziko irakaskuntzak (arte-irakaskuntzak, hizkuntzak, kirol-irakaskuntzak).

Hezkuntza Sailak aldi-aldi zehaztuko du eskola-plazaren eskaintza, kontutan hartuta ikastetxe guztien eskaintza, hala nola aurrekontu-baliabideak.

Doakotasunaren bermeak

Arrakasta profesionalaren eta eraginkortasun ekonomikoaren baldintzatzaile da hezkuntzaren kalitatea. Aukera-berdintasunetik hurbilen dagoen elementua da pertsona guztiei kalitatezko prestakuntza eskaintzea. Biztanleria osoaren ongizate-maila bere prestakuntza-sistemak funtzio hori ongi betetzean datza. Herri mailako planifikazioa, eskolaratze prozedura bateratuak eta finantziario publikoa jasotzen duten titularitate ezberdineko ikastetxeetako ikasleen matrikulazio eta eskolaratze-planifikazioa, tresna egokiak izan daitezke helburuok lortzeko. Doakotasun erreala bermatuko du Eusko Jaurlaritzak eskolaratze-kuotak desagerraraziz.

Euskal Hezkuntza Sistemaren mugarririk bikoitza da, ekitatea eta bikaintasuna bilatzen ditu. Ikuspegi honetatik pertsona guztiei prestakuntza-maila egokiak eskaintzea da eginkizunetako bat eta bestea garapen intelektual handiagoa gara lezaketen ikasleei aukera guztiak eskaintzea, biak baitira ekitatearen alderdi biak.

Eskolako jarduera osagarriak eta zerbitzuak ere arautuko egin behar dira, irabazi-asmorik gabekoak direla bermatuz araubide organikoan ezarritako baldintzetan, eta ikasleen parte-hartzea borondatezkoa dela bermatuz. Era berean, laguntzen ezarpena



arautuko du, egoera sozial edo ekonomiko ahuletan daudenek jarduera eta zerbitzu horiek eskura ditzaten.

Derrigorrezko eta doako irakaskuntzak

Eskolatzea derrigorrezkoa da 6 eta 16 urte bitartean, eta doakoa, gutxienez, Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera (3 urte). Oinarrizko Lanbide Heziketa doakoa izango da. Hezkuntza Administrazioak ziurtatu behar ditu derrigorrezko irakaskuntzen eta doakotzat jotako irakaskuntzen doakotasuna gauzatzeko baliabide publikoak.

Finantziario publikoa jasotzen duten ikastetxeek bete beharreko irizpideak zehaztu eta horien inguruko jarraipena egingo du Eusko Jaurlaritzak eta hezkuntza-zerbitzua ematen dutenen betebeharrak eta onarpen-prozedura arautuko ditu. Ikasleen oinarrizko hezkuntza beharrak %100 finantzatuko dira, irizpide ekitatiboen arabera, sozialki baldintza zailagoetan daudenak gehiago lagunduz.

LIDERGO BERRIAK ETA GOBERNANTZA-EREDUAK

Ikasleak ikaskuntzaren subjektu aktibo gisa ahalduzkoak lidergoen eta gobernantza-ereduen ikuspegi eraldatzailea dakar berekin, bai hezkuntza-prozesuaren barruan, bai eskola-antolamenduan, bai euskal hezkuntza-sistema osoan.

Elkarlana ahalbidetzea beharrezkoa da sistema eta azpisistema ezberdinak elkarrekin jarriz hezkuntza komunitateko benetako kide bilakatu daitezten herri, lurralde eta erkidegoa. Gobernantza berriaren erdian lidergoa dago, sistema osoaren eraginkortasuna eta ekitatea hobetzeko ezinbestekoa baita.

Aldi berean, hezkuntza-komunitatearen konplizitatea eta konpromisoa bilatuko da, beti ere, sistema hobetu eta ikasle guztien hezkuntza-arrakasta ziurtatzeko. Horrek denei eskatzen die egiteko moduen gaineko gogoeta, bakarkako moduetatik lidergo orekatu eta komunitariora igarotzeko.

Eskola-antolamenduan, arrakasta-faktore erabakigarria da zuzendaritza-taldea, hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzako praktikak sustatzeko. Horretarako, zuzendaritza-taldeak hautatu, prestatu eta aitortzeko prozedura berariazko bati ekingo zaio, proiektu kooperatiboak asmatzeko eta hainbat arlotan proposamenak egiteko topaguneak sortuz.

Hezkuntza-komunitatea

Hezkuntza proiektuen aniztasunak dakarren aberastasunak biltzen ditu ikastetxeak, elkarrengandik ikasiz proiektu oro ikasle eta familien errealitatera egokitzeko eta gardentasunez eta kontuen berri ematearekin, hezkuntzarako ikuspegi berriztatzailea delalarik jomuga. Ardatza ikaslea izanik, ikasle bakoitza bere gaitasunaren gehiengora iristen dela bermatzea da helburua. Ikaslea sostengatu eta egunero hezteko prozesu honetan, laguntzaile izango dira, eskolaz gain, familiak eta eragile soziokulturalak.

Komunitate osoak barneratu behar ditu hezkuntza-eragileek dituzten ezaugarriak (mehatxuak zein aukerak):



Etengabeko aldaketa eta ziurgabetasuna ⇒ (i) aurrerapen zientifiko eta teknologikoak; (ii) dilema moral berriak; (iii) aldaketak harremanetan, lanean, ekonomian eta ohituretan; (iv) infoxikazioa eta manipulazioa.

Globalizazioa ⇒ (i) norbanakoaren izaera, kultura eta hizkuntza; (ii) kultura anitzetik kulturartekoasuneko trantsizioa; (iii) eleaniztasuna; (iv) lankidetzan aritzea/lehiatzea; (v) pentsamendu kritikoa; (vi) informazio fidagarriaren hautaketa.

Digitalizazioa ⇒ (i) konektibitatea; (ii) gailuak/tresnak; (iii) eten digitalak; (iv) plataformak; (v) ikaskuntza, ahalduntze eta partaidetzarako teknologiak.

Klima aldaketa ⇒ (i) migrazio-mugimenduak; (ii) jasangarritasuna; (iii) xahurgarritasun berriak; (iv) ondasun komunaren ekonomia zirkularra; (v) erantzukizuna eta inguruaren zaintza.

Ikastetxeetako zuzendaritzen ahalduntzea eta lidergo pedagogikoa

Legeak eskola-zuzendaritzarako eredu propio baten aldeko apustua egiten du eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko profil egokiak eta motibatuak identifikatuko ditu. Eredu horrek berekin dakar (i) kudeaketan eta lidergoan prestakuntza integrala eta espezializatua izatea; (ii) eskola-zuzendaritzari laguntzeko ereduak, administrazioko langileen errefortzuaren bidez zuzendaritzaren zeregin burokratikoak murriztuaz. Hartara, zuzendaritzak arreta jarri ahal izango du alderdi pedagogikoetan, talde-harremanetan, irakasleen antolaketan eta egungo hobekuntza- eta bikaintasun-plan propioen sustapenean.

Zuzendaritza sendoa behar du ikastetxe orok eskola-komunitatea estrategia irmo batez gidatuko duena, erabakiak hartzeko autonomia izango duena eta lortu beharreko emaitzekiko erantzukizuna bere gain hartuko duena. Bi dira gakoak: autonomia eta eskumenak, hau da, egiteko aukerak eta ebaluatzeko gaitasuna.

Zuzendari eta zuzendaritza talde profesionali goi mailako eskakizunak egokitzen zaizkie:

- eremu kurrikularri dagozkion heziketa eta lege-markoak ezagutu eta bere testuinguruan garatzeko gaitasuna.
- baliabideen kudeaketa etengabe hobetzeko ezaguera eta hezkuntza komunitateak eskaintzen dituen aukerak sartzeko gaitasuna
- elkarbizitzarako giroa etengabe sortu eta hobetzeko gaitasuna.
- kudeaketa bizia eragiteko gaitasuna, norbere ardurako ikastetxean eta ingurukoekin elkarlanean.

Horrek eskatzen du, (i) errendimendu handiko prestakuntza berezitua; (ii) perfil horretako ardura direktiboek dakarten maila pertsonaleko zein taldeko baliabide nahikoak; (iii) erantzukizun eta eskaera horiek eskatzen duten neurriko irabazi ekonomikoak eta errekonozimendu soziala

Ikastetxeen lankidetzaren gobernantza

Legeak aurreikusten duen lankidetzaren gobernantza eskola-komunitate osoa ordezkatzeko



duen organoa eskatzen du, plan estrategikoari eta urteko planari buruz erabakiko duena, kudeaketa eta emaitzak ebaluatuko dituen eta erantzukizuna, inplikazioa, berrikuntza, gardentasuna eta kontuak ematea erabiliko dituen.

Ebaluazioa sistematizatu beharra dago, hobetzeko tresna gisa onartuz eta elkarri kritika konstruktiboak egiten ikasiz, irakasleak erdigunean dituzten ikasleen gaitasun eta zailtasunak zehaztu, lehenengoak potentziatzeko eta bigarrenetan laguntzeko.

Programa-kontratua

Ikastetxe bakoitzak Hezkuntza Sailarekin adostutako Plan Estrategikoaren jarraibideak burutzeko tresna juridikoa, ekonomikoa, finantzarioa eta plangintza estrategikoaren alorrekoa da programa-kontratua. Haren eskutik, plan batean ezarritako ildo estrategikoak definitu eta adostuko ditu Hezkuntza Sailak ikastetxearekin. Eta adostu aldirako esleitutako aurrekontua, ikastetxean txertatuko diren baliabide teknologikoak eta pertsonalak eta ebaluazioaren emaitzak kudeatzeko adierazleak ere zehaztuko dira. Programa-kontratua eratu daiteke ikastetxe multzo baterako ere eta, kasu horretan, ikastetxe bakoitzerako banakako eranskinak jasoko dira.

Programa-kontratuak eta, hala badagokio, eranskinek, honako osagai hauek jasoko dituzte:

- alde sinatzaileak
- bultzatu beharreko misioa eta ikuspegia
- Plan estrategikoan eta programa-kontratuan bertan eragina duten balioak.
- ebaluazio-adierazleak eta -metodologia

Administrazioen arteko hezkuntza-kogobernantza

Hezkuntza komunitateak ikas/irakas prozesuetan esku hartzen duten erakundeen inplikazioa eta elkarlana bultzatuko ditu. Udalek bereziki eginkizun sakona hartu dezakete matrikulazio prozesuan, onarpen protokoloak familiengana hurbiltzeko, azpiegiturak indartzeko, elkarbizitza sustatzeko, kohesioa bultzatzeko sareak sortu edota elikatzeke, euskararen erabilera sustatzeko eta, azken batean, eskola komunitatea sendotzeko.

Gizarte- eta hezkuntza-programak: administrazioen erantzunkidetasuna

Legeak aurreikusiko du ikastetxeek gizarte- eta hezkuntza-arloko eta aisialdiko planak eta programen sustapena, tokiko baliabideen kudeaketan modu positiboan eragiteko, bizikidetzak hobetzeko eta ikasle guztien inklusioa eta arrakasta hobetzeko. Jaurlaritzari dagokio, bere eskumenen esparruan, akordio horiek udalekin eta foru-aldundiekin arautu eta formalizatuko dituen esparrua ezartzea.

Tokiko Hezkuntza Kontseiluak

Familien, zentroen eta udalerrien arteko benetako konpromisoa elikatzen duen giro kooperatiboa ezinbesteko lan-tresna da, jarrera profesional irekia eta eskuzabala erakusten duten heinean ikasleen onura dakartelako. Gogoan hartzeko hiru irizpide: (i) ikaskuntzak denbora eta ahalegina eskatzen ditu; (ii) bizikidetzak oinarrizko arau batzuk errespetatu behar ditu; (iii) adingabeek helduen zaintza eta laguntza behar dute.



lzan ere, gero eta gehiago ari da hedatzen herritarrak hezteko ardua partekatua denaren ideia. Premisa horretatik abiatzen gara eskola eta gizarte-ingurua elkarreraginean jarduten duten bi esparru gisa ulertzen baitugu; batak zein bestek elkarren beharra dute. Alegia, eskola gizartearen isla den modu berean da gizartea eskolek hezitako herritarren hartzaille zuzena.

Tokiko Hezkuntza Kontseiluak eratzea proposatzen da. Batetik, zenbait baliabide komunitario artikulatzeko ikasleen ongizatearen eta heziketaren mesedetan. Bestetik, hezkuntza komunitate guztiaren partaidetza bilatu eta hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko uztarketa sustatzeko.

Tokiko Eskola Kontseiluari kontsulta egingo zaio honako eduki edota jardunetan: (i) hezkuntza-premiak identifikatzea, eskaintza banatzea eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehaztea, hiri-plangintzatik eratorritakoak barne; (ii) hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen eskolatzeko egokia eta orekatua bermatzen laguntzeko jarduerak eta behar diren neurriak hartzea, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste izaera bategatik bereiztea saihesteko; (iii) ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dioten udal-jarduerak; eta (iv) udalerrria eremu duten patronatuak, partzuergoak eta hezkuntza-erakundeak eratzea.

Euskadiko Eskola Kontseilua

Hezkuntza-komunitateak unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrean parte hartzen duen organo gorena da. Gainera, kontsulta- eta aholkularitza-organotzat du Eusko Jaurlaritzak hezkuntzaren arloan proposatu edo emandako arau-dokumentuak. Hezkuntza arloko gobernantza kolaboratiboan parte hartuko du.

Euskadiko Eskola Kontseilua eraberritu egingo da eta ikastetxeek zein tokiko hezkuntza kontseiluek eta gizarte eragileek ordezkartza izango dute. Eginkizun nagusiak izango dira, (i) udal zein ikastetxeetako kontseiluekin sinergiak sustatzea; (ii) ikasleek ikastetxean parte har dezaten erraztea, garapen pertsonala eta soziala eta kidesun-sentimendua sustatuz; (iii) (Urteko) Txostenaren proposamenak hurbiltzeko, ikastetxeetako zuzendaritzekin, hezkuntza-zerbitzuekin eta unibertsitateekin elkarrizketa eta informazio-bideak garatzea; (iv) Hezkuntza Sailarekiko harremana sistematizatzea eta Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean kontuak ematea sistematizatzea.

Euskadiko Eskola Kontseiluak lekua egin diezaioke guraso elkarte edo federazio txikien ordezkartzari ere.

Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua

Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua partaidetzarako erakunde gisa eratuko da. Gaitasun eta autonomia nahikoa izango du bere beharrak eta interesak identifikatu eta defendatzeko, ikastetxe publikoen lana eta hezkuntza-lorpenak ikusarazteko, ingurunean integratzeko eta ikastetxeen arteko lankidetzaren lana bultzatzeko, bere nortasunaz jabetzeko eta kalitate eta ezagutzaren aldetik lehiakorra izango den euskal eskola publikoa bultzatzeko.

Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluak urte anitzeko plan estrategikoen bidez, ikastetxe



publikoen arteko elkarlana sustatuko du, eta jardunbide egokiak transmititzeko sareak sortuko ditu.

IKASLE ANIZTUNAK HELBURU: HIZKUNTZEN ERABILERA ETA IKASKUNTZA

Euskal Hezkuntza Sistemak proiektu eleaniztun batean inbertituko du, dimentsio guztietan: irakasleak eta ikasleak inplikatuko ditu, komunikazio eraginkorrerako gaitasunak garatu ditzaten.

Hezkuntza da ardatz nagusia egoera gutxituan dagoen edozein hizkuntzaren berreskurapenerako, belaunaldi berriek gaitasun egokia lor dezaten bermatzen duelako eta gizarte-kohesiorako giltzarria ere badelako. Helburua argia da, ikasle guztiek gaitasun komunikatiboa izatea ofizialak diren bi hizkuntzetan, egoera errealerako egokituta, ikastetxeak euskararen arnagune izan daitezten. Euskararen erabilera errazten duten neurriak kontutuan hartuko dira, hala nola, ikastetxeko hizkuntza proiektua, eskola komunitatearen motibazioa suspertzea edota ikasleen arteko harremana euskaraz indartzea.

Euskararen Aholku Batzordeak aho batez onartutako proposamenak jasoko ditu legeak, euskarari buruzko diskurtso partekatua sortzeko eta euskararen aldeko giro egokia indartzeko, Lanbide Heziketan eta hezkuntza ez-formalean euskararen presentziaren jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa bultzatzeko, hezkuntzako profesionalen komunikazio-gaitasuna hobetzeko eta hizkuntzen ikaskuntza eta erabilera bideratzeko modu berriak ikertu eta garatzeko.

Norberaren zein kanpoko ebaluazioen emaitzek eta gizarte-aldaketek hizkuntzen irakaskuntzan beharrezko egiten duten aldaketa metodologikoei ekingo zaio ikasleen hizkuntza-gaitasunak hobetzeko.

Euskal Hezkuntza Sistemaren hizkuntza-eredu eleaniztuna

Euskal Hezkuntza euskara ardatz duen sistema eleaniztuna da, eta bi hizkuntza ofizial eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza baten bidez egituratzen da, herritarren gizarte-kohesioa eta komunikazio-gaitasuna bi hizkuntza ofizialetan bermatzeko funtsezkoa baita. Eta horren alde egiten jarraitu behar da, hizkuntza- eta kultura-kontzientzia zabala eta komunikazio-gaitasuna etengabe hobetzea dela helburu. Ikasle guztiek, familiaren jatorria gorabehera, ikasketak amaitzean bi hizkuntza ofizialak maila berean ezagutzea eta gutxienez atzerriko hizkuntza baten ezagutza izatea ahalbidetzearen alde egingo du legeak.

Urteetako esperientziak erakusten dituen indargune eta ahulezietan arreta osoa jarri behar du, ebaluazioen emaitzak faktore anitzekoak izanik, interpretazio sinplistetan erori barik.

Hezkuntza-administrazioak bermatuko ditu ikasleen hizkuntza-eskubideak. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean zein bestean egon daitezkeen gabeziak konpentsatzeko neurri eraginkorrak bultzatuko ditu.



Bestalde, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuek eta curriculum-proiektuek laguntza-neurriak aurreikusiko dituzte hizkuntza-arrazoiengatik ikasteko zailtasunak dituzten ikasleentzat, ikasgaiak berandu ikatea saihesteko.

Euskara, sistema eleaniztunaren ardatza

Euskal Hezkuntza Sistemak euskararen ikaskuntzaren berme izan behar du, hizkuntza-proiektu integratuak abian jarri. Helburua da ikasle euskaldun eleaniztunak lortzea, gainerako hizkuntzak eta kulturak errespetatuz gizarte-kohesiorako eragile aktiboak izatea.

Halere, euskara gizarte-hizkuntza normalizatua izan dadin, eskolaren esku-hartzea ezinbestekoa bada ere, ez da nahikoa, hezkuntza komunitateko zein gizarteko beste eragile batzuek ere ezinbestekoak baitira.

Hezkuntza-eredu eleaniztunaren helburuak

- Ikasleak eleaniztasunean gaitzea, derrigorrezko hezkuntza amaitzean hizkuntza ofizialak ondo menderatzen dituztela eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean gaitasun nahikoa dutela eta gizarte eleaniztun eta kulturazintun batean elkarbizitzeko gai direla bermatzeko.
- Euskara erreferentzia-hizkuntza gisa indartzea eta ikasleen erabilera aktiboa sustatzea.
- Ikaskuntza-prozesua garatzerakoan, ikasleek duten gaitasun eleaniztuna erabil dezatela. Eta aldi berean euskal kulturaz jabetzen joan daitezela
- Atzerriko ikasleen hizkuntzak eta kulturak ikastetxeetan agerian jartzea, elkarrekiko aintzatespena bultzatzea, aniztasunaren balio kulturala eta ekonomikoa nabarmentzea eta hezkuntza-integrazioa sustatzea, beti ere, euskara eta euskal kultura ardatz direla.
- Ikasleengan beste hizkuntza eta kultura batzuekiko jakin-mina piztea, nolakoak diren eta nola funtzionatzen duten jakitea eta bizitza osoan horiek ikasteko autonomia izatea.

Curriculumek bermatu behar dute ikasleek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabiltzaile aurreratu gisa erabat menderatzen dituztela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, Europako erreferentzia-marko bateratuaren adierazle bertsuetan. Era berean, aurreikusi behar dute gutxienez atzerriko hizkuntza bat behar beste ezagutu eta komunikazio egokia lortzea ikasketa-etapa beraren amaieran.

Lanbide-heziketako eta araubide bereziko irakaskuntzen curriculumek ere bermatuko dute ikasleek eskuratuko dutela haietako bakoitzari dagokion irakaskuntzako eta lanbide-eremuko hizkuntza-gaitasun teknikoa.

Eusko Jaurlaritzak ebaluazio-tresnak jarriko ditu lortutako mailak balioztatzeko eta jarraipen-sistema eraginkorra ezarriko du ebaluazioaren emaitzak hobetu eta helburuak lortzeko.

Euskal Hezkuntza Sistemaren baitan euskara lehenetsiko da jarduera-harremanetan zein profesioletan baita ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan



ere. Irakasleria hizkuntzen irakaskuntzaren metodologietan formatzen jarraitzea aurreikusten du legeak, baita euskal kulturaren transmisio eraginkorrerako beharrezko gaikuntza izateko ere.

Euskal Hezkuntza Sistemaren berandu sartzen diren atzerriko ikasleen harrerak eta hizkuntza-arretak ikerketa- eta garapen-programa integralak eskatzen ditu eta programa horietan ikastetxeek eta administrazio publikoek parte hartuko dute, ikasle horien inklusioa ahalbidetzeko. Halaber, hezkuntza-esperientzien trukea bultzatuko da beste herrialde batzuekin lankidetzan, bai eta ikasleen eta irakasleen mugikortasuna ere.

Erronka nagusi horiek beharrezko duen zeharkakotasunak baditu gakoak.

1. **Hezkuntza sistema bakarra eta askotarikoa**, dibertsitatekin lan egiteko. Testuinguru soziolinguistikoa zein ikasle profil soziolinguistiko eta sozioekonomikoa kontutan hartuz, askotariko dibertsitatea dugu. Hortaz, ikastetxeen autonomia euren ibilbide propioak diseinatzeko giltzarria da.
2. **Epe luzerako plana eta barne koherentzia. Lidergoa eta lankidetzak**. Orain arte ere planak egin dira baina norabidea hobeto zehaztu beharra dago; plan adostua behar da epe labur, ertain eta luzerako helburuak zehaztuta izango dituen, Hezkuntza Sailaren lidergoan eragile guztiak inplikatzeko dituen plan koherentea. Hezkuntza eragileek badituzte eskarmentu eta gaitasun baliagarriak. Nagusiak, hauexek dira: Hezkuntza saila (bere zerbitzuekin), ikastetxeak, irakasleak eta unibertsitateak. Hauen arteko lankidetzak eta kudeaketa asmatu beharra dago.
3. **Ikasleen hizkuntza-gaitasunaren irudikapena**. Pertsona elebiduna ez da bi eleren batura duena. Elebidunaren gaitasuna, gaitasun elebiduna da; eta hiztun eleaniztasunena, gaitasun eleaniztuna. Esan nahi da hizkuntzak modu bateratuan planifikatu eta lantzea eta euren arteko transferentziak egiten ikastea, hizkuntzek elkarri lagun dezaten.
4. **Irakasle bikainak** behar ditu plan bikainak. Hona irakasleen prestakuntzarako hausnar-gaiak: (i) irakasle lanbideari prestigio gehiago emateko Hezkuntza sailak neurriak eta pedagogia sozialak bultzatuko ditu. Irakasle bikainak eta konprometituen erakarri behar dira.
5. **Ikerketa** aplikatuaren bidez, kanpo-ebaluazioen emaitzak aztertu eta ikertzea, berrikuntza proiektuen eraginkortasuna etengabe hobetzeko. Hezkuntza Sailak unibertsitateekin batera aztertuko du zer eta zelan.
6. **Ikasmaterial** egokiak ziurtatzea, eraldaketa-tresna hauek erabakigarriak baitira ikas-prozesuan. Ikasmaterialen ebaluazio orok irizpide argiz egina eta ikasi-metodologekin bat datorrena behar du.



7. **Eskola ekosistema bat da eta**, aldi berean, beste zabalago baten parte da, gure kasuan komunitate anitz baten barruan. Testuinguru soziolinguistiko batzuetan eskola da euskara ikasi era erabiltzeko eremu bakarra nahiz eta berauetan ere lehen hizkuntza euskara dutenak eskolatzen diren. Badaude, baita, zonalde oso euskaldunak izanda, ia euskaraz ez dakiten ikasleak hartzen dituztenak. Bi egoera hauen artean kokatzen dira gainerakoak eta denak jaso eta landu behar ditu Euskal Hezkuntza Sistemak ekitate eta bikaintasuna dituela ortzi-muga.

Euskal gizarteak duen komunitate senak erakusten digu erronkarik sakonenak berrikuntza eta hobekuntza ekar ditzaketela. Hori gertatu zen duela 40 urte. Gaur ere asmatzea tokatzen da. Erronkak handiak dira baina zumeak ditugu: jakintza, eskarmentua, motibazioa... eta beharra.

Hizkuntza proiektuak eta ikuspegi metodologikoa

Funts publikoekin sostengatutako ikastetxeek euren hezkuntza-proiektuaren atal gisa landuko dute hizkuntza-proiektua bere ikuspegi metodologikoa barne, beti ere ingurune soziolinguistikoa eta ikasleen profilak kontuan hartuta, ikasleek hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran beharrezko hizkuntza-maila eta gaitasunak eskura ditzaten. Halaber, ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko irizpideak garatuko dituzte. Euskarari dagokionez, hizkuntza-proiektuak curriculumaren eta ikastetxearen helburuak zehaztu beharko ditu, baita eskolaz kanpoko jardueren proposamenak ere, euskararen erabilera ziurtatzeko.

Hizkuntzen tratamendu integrala eta integratua. Metodologiak

Curriculumak hizkuntzen tratamendu integratu eta integrala jasoko du. Tratamendu hori, aldi berean, ikastetxearen hizkuntza-proiektuan jasoko da, bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean gaitasun nahikoa lortzeko. Komunikazio- eta hizkuntza-gaitasunaren garapena zeharka landuko da curriculum-arloen testuinguruan.

Bestalde, hizkuntzazkoak ez diren irakasgaietako irakasleek komunikazio- eta hizkuntza-gaitasuna garatzen laguntzeko ardura izango dute. Eta ikastetxeek hizkuntza-proiektuaren barruko helburuak planifikatu eta finkatuko dituzte ikasgai guztietan, komunikazio-gaitasuna lantzeko.

Irakasleen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko prestakuntza

Prestakuntzak honako ekintza hauek hartuko ditu kontuan: (i) irakasleak curriculum-hizkuntzetan hizkuntza-gaitasuna hobetzeko garapen- eta hobekuntza-plan bat; (ii) prestakuntza-plan bat, euskararekiko eta curriculumeko beste hizkuntzekiko konpromisoa sustatuko duena, bai eta horiek erabiltzea ere beharrezkoa dela ziurtatuko duelarik; (iii) irakasleak euskara-gaitasunetan trebatzeak eta atzerriko hizkuntza batek, batez ere ingelesak, kalitatezko irakaskuntzaren beharrei erantzungo diela.

Prestakuntza metodologikoa hizkuntzen irakaskuntzan



Eskola eleaniztun bat planteatzeak – ez hizkuntza desberdinak irakasten dituen eskolak-kontzeptuen esparrua aldatzea dakar eta irakasleekin lan espezifikoak egitea eskatzen du. Helburuak lortzeko eta ikaskuntza-agertoki berriak abian jartzeko, proiektu eleaniztunak gauzatzeko prestakuntza espezifikoak ahalbidetuko da. Hezkuntza Sailak berariazko prestakuntza planteatuko du bai metodologiari dagokionez bai curriculumaren diseinuan eta diziplinarteko lanean duen aplikazioari dagokionez ere, hizkuntza-proiektuak sistema eleaniztun batean gauzatzeko, euskara ardatz nagusitzat hartuta.

IKASTEKO ETA ETENGABE HOBETZEKO PALANKAK

Hezkuntzaren eraldaketa eta hobekuntza bi ardatzetan: ekitatea eta bikaintasuna

Ekitatea eta bikaintasuna hezkuntza-erlaketaren bi alderdi dira. Garrantzitsua da erronka: kezka moduan bizitzetik aukeratzat hartzera. Aukera da gizarte-koheretia, aukera izango den bezalaxe lege honek euskal eskola inklusibo baten alde egingo duen apustu irmoa, ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko; hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioak; ikasle ijitoak eskolaratzeko; adimen-gaitasun handiko ikasleentzako jardunerako; ikasleen eskubideak eta betebeharrak zaintzeko; eskola-jazarpen eta ziberbullyingaren aurrean jarduteko edota genero-jokabidea ez arautua duten ikasleei laguntzeko.

Bestalde, bikaintasunak behar du izan Euskal Hezkuntzaren ikur nagusietariko bat, etengabeko hobekuntza eta aukerak optimizatzea sustatzen dituzten formulak sailatzeko. Ahalduntutako ikastetxek proiektu partekatuak eraikiko dituzte eta adimen kolektiboko espazioak antolatzea bultzatuko, bikaintasun-eremuak bilatzeko helburuz.

Euskararen Ikaskuntzarako Institutua

Euskal Hezkuntza Sistemari ahalegin berezia ezartzen dio bai hizkuntzen metodologiak trataerak zein irakasleen prestakuntzak. Horrek eskatzen ditu hizkuntza mailak ziurtatzeko baliabideak, dokumentazio egokiak, ikerketak, prospekzioak, ebaluazioak... Eta hau guztia, unean-unean euskal komunitatea hizkuntza arloan izaten ari den jarrerarekin, aurrerapenarekin eta inplikazioarekin lotzea.

Helburu propio horiek bere gain hartuko dituen erakunde sendo bat eratuko da, azken lau hamarkadetan Euskara Zerbitzuak izan dituen eginkizunen jarraipena ere barne hartuko dituen.

Euskararen Ikaskuntzarako Institutuak Euskararen Aholku Batzordeak onetsitako zenbait lan ildo izango ditu kontuan, ondoko hauetan: irakasleen gaikuntza hizkuntzan eta metodologian, euskal kultura transmititzeko gaikuntza barne; hizkuntza-ziurtagirien beharrak aztertzea, proposatzea eta ezartzea; euskal curriculumaren lanketa eta eskola materialaren ekoizpenaren antolakuntza; eta eskola eremuan hizkuntzaren erabilerarako dinamizatzea lanetan.



Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa

Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa bultzatuko da hezkuntza arloan prestakuntza, aholkularitza, ikerketa eta berrikuntzaz arduratuko den organo gisa. Zentro hau, kudeaketa, antolakuntza, metodologiak eta tresnak garatzeko eredu aurreratuen ezagutza transferitzeaz arduratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztien premia eta errealitateetara egokituta.

Organo honen helburuak, hauexek: unibertsitatez kanpoko mailetako hezkuntza-berrikuntzaren arloan ikertzea; metodologiei eta teknologiei buruzko prestakuntza eta aholkularitza ematea irakasleei eta ikastetxeei; ikaskuntza-prozesuak hobetuko dituzten ingurune presentzial eta digital berrietan etengabeko hobekuntza garatzen laguntzea; irakasleen komunikazio-gaitasun integrala sustatzea testuinguru eleaniztunean; ikastetxeen antolaketarako modu berriak eta kudeaketaren eraginkortasuna sustatzea; eta eskola inklusiboaren garapena eragitea, ikasle guztiek parte hartuz eta ikasteko prozesuetan hobekuntzak eraginez.

Ikuskaritza

Euskal hezkuntzaren printzipio, balore eta irizpide nagusiekin koherentzian birdefinituko du Ikuskaritzak bere egitekoa; besteak beste, ikastetxeetako hezkuntza-proiektuen garapen bideak, autoebaluazioa eta kanpo-ebaluazioko prozesuak eta hobekuntza proposamenak, eta baita ikastetxeetako egoera gatazkatsuen konpontze-metodologiak eta praktikak.

Eraldaketa eta inklusiorako digitalizazioa

Digitalizazioak hezkuntzari aukera askotarikoak eskaintzen dizkio, beti ere, ikaslearen ahduntzearekin zuzenean lotuak.

Digitalizazio-estrategia berri baten bidez, Euskal Hezkuntza Sistemak erantzuna eman nahi die egungo testuinguru berrian planteatutako erronkei, bai teknologia digitalaren erabilera areagotuz irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan eta baita eraldaketa digitalerako oinarrizko trebetasunen garapena eratuz. Teknologia egokiak eta beharrezko jarraibide metodologikoak premiazkoak dira, oinarri pedagogikoak kontuan hartu eta ikaskuntza-prozesuak modu berriez bultzatzeko digitalizazioak eskaintzen dituen aukerak baliatuz.

Era berean, irakaskuntzaren gaikuntzarako plan bat indartzea aurreikusiko du legeak, non garrantzizkoena izango den lanabes digitalak ikasleen ikaskuntzari modu espezifikoa eskaintzeko erabiltzea, bai eta ingurune birtual integralak sortzea, prozesuen eta ikaskuntzaren kudeaketa eta ebaluazioa jasotzeko, hala nola familiekiko eta inguruarekiko komunikazioa izateko.

Euskal Hezkuntza Sistemak datuen burujabetza teknologikoaren alde egiten du, digitalizazio etiko, arduratsu, eraginkor eta euskalduna bermatzeko aukera gisa. Eta hori epe luzerako begiradarekin diseinatu behar da gure hezkuntza sistema bere burua eraldatzen joan dadin, baita digitalizazioan ere.



Irakaskuntza-funtzioaren paradigma. Inguruneak eta irakatsi eta ikasteko prozesuak berriz diseinatzea

Hezkuntzaren arrakastarako gakoetako bat irakasleria da. Irakasleen jarduera eraldatzailea eta eraginkorra irakasle bakoitzak egiten duenetik abiatuko da eta, aldi berean, ikastetxeak kolektiboki landuko duenetik: praktikak aztertzea, eztabaidatu eta adostea; prozesu berriak birformulatzea, diseinatzea eta lantzea; eta eskolen arteko lankidetzak, kanpoko adituen laguntza barne. Lana ez da erraza baina irakasleen gehiengo handi batek aldarrikatzen du hasierako formazio-ereduak aztertzea, asko eta sakonak baitira XXI. mendera egokitzeko premiak, bai kurrikuluari buruzkoak eta baita ere antolaketa edota lidergo berria bezalako gaiak dagozkienak.

Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza

Euskal Hezkuntza Sistemak ebaluazioan dauka hobekuntza tresna nagusietako bat. Emaitzak hobetu ahal izateko sistemaren ebaluazio integrala indartuko da, hots prozedura eta eragile guztien jarduna, adierazle adostu eta neurgarrien baitan. Gainera, hezkuntza prozesua jarrera positiboekin ere elikatzen denez, garrantzia emango zaie poztasuna, gozamina, ilusioa, kuriositatea, segurtasuna, babesa, lorpena, errotzea, errespetua, maitasuna edo eskertza bezalako zirraren adierazleei.

Ikasleen barne-ebaluazioa irakaskuntza- zein ikaskuntza-prozesuak hobetzeko tresna da. Bere ezaugarriak dira indibidualizatua, etengabea eta ikaslearen bilakaera islatzeko gai izatea. Halaber, ikasleen kanpo-ebaluazioak arrazionalizatzeko ahalegina egin behar da, helburuekin koherentzia eta printzipio metodologikoak oinarri.

Zuzendaritza-funtzioa ere ebaluatuko du legeak, kontuan hartuz eskola-emaitzak hobetzerakoan zuzendaritzek eginkizunaren erabakigarritasuna.

Laburbilduz, ebaluaziorako esparru propio bat eraikiko da, bere ikuspegi integrala garatzeko; izan ere, prozesu konplexua eta faktore anitzekoa da, ikasleak, irakasleak, curriculumak, zuzendaritzak, ikastetxeak, familiak, komunitatea eta hezkuntza-sistema barne hartzen dituenak, eta autoebaluazioaren eta kanpo-ebaluazioen arteko osagarritasuna bilatzen duena.

Prospekzioa

Prospekzio-jarduerak ezinbestekoa da hezkuntza-sistema testuinguruaren eskakizunen arabera moldatzeko. Ariketa garrantziko da prospekzioa eta lotuta dago, besteak beste, irakaskuntzako lanbide-profilen identifikazioarekin, hezkuntza-gaitasunen definizioarekin, irakasleen belaunaldi-erleboarekin, hezkuntza-eskaintza eskarira egokitzearekin eta hezkuntza-sistema eta irakaskuntza-metodologiak iraultza teknologikora egokitzearekin.

Hezkuntza-arloko prospektiba-jarduerak Eusko Jaurlaritzak, Irakas-Sistemaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Euskal Erakundeak (ISEI-IVEI), ikastetxeak eta, hala badagokio, Euskadiko Eskola Kontseiluak egingo dituzte.



Irakas-sistemaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Euskal Erakundea

Hezkuntza Sailari atxikiko zaio ISEI-IVEI. Honako eginkizunak ditu: a) ikastetxeak ebaluatzeko eta emaitzak ikuskatzeko eredu eta protokolo egokiak zehaztea; b) irakaskuntza-funtzioa eta zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko ereduak eta protokoloak zehaztea.

LANKIDETZAKO PRESTAKUNTZA BERRI BATERANTZ

Irakasleen prestakuntzaren kalitatea da hezkuntza-sistema hobetzeko oinarrietako bat. Hautaketa- eta prestakuntza-prozesuek lehentasuna dute bere ahalduntzea, profesionaltasuna eta prestigioa bultzatzeko. Esparru honek bi ardatz nagusi ditu, (i) etorkizun hurbilean irakasle izan nahi dutenekin hausnartzea lanbide horrek eskatzen duenaz eta, ondorioz, sarbiderako beharko diren gaitasun eta trebetasunez jabetzen laguntzea; (ii) irakasleak etorkizuneko gizarterako prestatzea, ez soilik gizarte eskaerei erantzuteko, hezkuntzaren bidez gizarte jasangarria eta inklusiboa sustatzeko baizik.

Hezkuntza lana eraginkortasunez garatu ahal izateko ezinbesteko tresnak dira, besteak beste, lan-taldeen egonkortasuna eta kontsolidazioa, ikasle etorkinak eskolan murgiltzeko programak, inklusioa eta aniztasunaren trataera, hezkidetzak eta etengabeko eguneratze pedagogikoa.

Hasierako prestakuntza

Irakasleen hasierako prestakuntzaren xedea etorkizuneko hezitzaile gisa gaitzea da: belaunaldi berriak ziurgabetasunez beteriko etorkizunaren aurrean prestatzea eta hezteak. Egungo gizartean eraldatzaile izatea da sortzaileekiko sentiberatasuna izatea, bertako hizkuntza, historia eta kulturaren ezagutza sakon eta zabalaz jabetzea; eta, aldi berean, gure gizartean sortzen diren kultur-zeinu berriak balioesteko gaitasuna erakustea. Irakasle-konpetentziak eskatzen dituen ezagutza pedagogiko eta didaktiko sendoak lortzea da erronka. Ezagutzaz jabetzeak, transposizio didaktikoa egiteko eta arlo ezberdinen tratamendu metodologikorako ezagutza multzoa eskuratzea eskatzen dio hasierako prestakuntzan dabilen irakasle-gaiari.

Irakasleen hasierako prestakuntzak bereziki azpimarratuko ditu alderdi psikopedagogikoak, hizkuntzen ezagutza nahikoa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak menderatzea eta euskal erakundearen eta kulturaren ezagutza, indarrean dagoen arau-esparruan. Bereziki, irakasleek autoikaskuntzaren sustatzaile gisa duten rolari dagokionez izango du eragina, bai eta ezagutza eskuratzeko, irizpidea finkatzeko, bereizten jakiteko eta ikuspegi kritikoak garatzeko eta elkartasuna sustatzeko teknologia berriak erabiltzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzeari dagokionez ere.

Hezkuntza Sailak bermatuko du hasierako prestakuntza egokia, ikasgaiekiko eta pedagogiko prestakuntza eta praktiken arteko oreka oinarri hartuta, hezkuntza sistemaren kalitatea eta ikasleen beharrezko gaitasunak eskuratzea bermatzeko.

Etengabeko prestakuntza



Gure hezkuntza-sistemaren kalitatea irakasleak zuzen aritzen eta etengabe ikasten duten neurrian sendotzen da. Irakasleria ahaldundu eta prestigiotsu baten alde egiten dugu. Ezagutza pedagogikoa sortzeko benetako gaitasuna hezkuntza-erakundeen praktikan bertan hasten da: barneko prestakuntzan sustatu behar da ekintzan zehar mamitu beharreko hausnarketa; gogoeta hori alderdi teknikoetatik harago doa: kideen arteko elkarlan adostu eta testuinguruaren arabera ari gara.

Irakasle ahaldunduek ezagutza pedagogikoa garatuko dute, kideekin eztabaidan eta baita gizartearen etengabeko aldaketetara egokituko den ezagutza kultural eta zientifikoa ere. Ezagutza hori irakaskuntza-lana egiten duten ingurunean gauzatu behar da, eta beren eskola-inguruneke beste irakasle eta erakundeekin etengabeko eztabaidan. Irakaskuntza ez da banakako lana, aitzitik, sareko eta lankidetzakoa da. Horretarako, ezinbestekoa da eskola antolatzeko egitura eta modu berriak sortzea.

Hezkuntza-administrazioak zainduko du irakasleek euren lanbide-jarduera baliabide egokien bitartez garatzen dutela, ikasleen prestakuntza eta garapenean emaitzarik onenak lortzeko. Horretarako, programa egonkor eta jarraituak garatuko ditu, eta programa horietan parte hartzea irakasleen erantzukizuna eta betebeharra izango da.

Bestalde, irakasleen erantzukizuna da euren ezagutzak eta trebetasunak une bakoitzeko erronka eta eskakizunen arabera etengabe egokitzea eta moldatzea, eta, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologien bilakaerara, digitalizaziora eta automatizaziora, ikasleek prestakuntza egokia jaso dezaten eta esparru horietan dituzten gaitasun eta ahalmen akademikoak ahalik eta gehien gara ditzaten.

Era berean, irakasleek lanbidean aurreratzeko eta beharrezko prestakuntza jasotzeko eskubidea izango dute, bai eta beren ezagutzak eta trebetasunak irakaskuntza-metodologia berrien erronketara eta iraultza teknologikoaren eskakizun zuzen edo zeharkakoetara egokitzeko behar diren gaitasunak garatzeko edo ikasteko eskubidea, betiere ikuspegi humanista, sozial eta ekitatibotik.

Erronka horiei eta agertuko direnei aurre egiteko beharrezkoak dira administrazioa, ikastetxeak eta unibertsitateetako berariazko fakultate/eskolen elkarriketa eta elkarlana, gutxienez bi eremutan:

- irakasleen etengabeko formakuntza kalitatezkoa lortzeko eta hobekuntza prozesuak lantzeko. Praktika honek bakarrik bermatu dezake administrazioak, ikastetxeek, irakasleek eta formatzaileek egiten duten esfortzua.
- fakultate eta irakasle eskolen funtzioen artean dagoen ikerketaren ondoriozko ezagutzaren transferentzia-ildoan, eragin zuzena baitu irakasleriaren hasierako zein etengabeko prestakuntzan. Argi dago, ebidentzia zientifikoa oinarri duten interbentzio pedagogiko eta didaktikoek hezkuntza praktika bidezkoagoa dakartela, aniztasunari erantzun egokiagoa ematen dietelako.

Laburbilduz, diziplina esperimentalen oinarrietara joanda:

- berrikuntzan zentratutako proiektuak lankidetzan oinarritu eta ehunduko dira;
- berrikuntzak gauzatzeko testuinguruaren ezaugarriak ikuspegi holistatik aztertu eta saiatzeko ezinbestekoa da;



- ikasteko modu berriei behar bezala erantzuteko gai izango diren profil profesionalak prestatu behar dira: ikaskuntza-prozesuak erraztea helburu duten profesionalak, berdinen artean ikastun gisa egoteko gaitasuna dutenak, lidergoa hartu eta komunitateari ekarpena egiteko gai izango direnak;
- ikastetxeen eta unibertsitateen arteko zubiak eraiki behar dira, Hezkuntza saila gidari dela, berrikuntzan pausuak emateko, esperientzia berritzaileak ikertzeko eta garatzeko.

Amaitzeko. Honakoak dira aurreikusten dugun euskal hezkuntza sistema eraldatzailearen ezaugarriak, hezkuntzaren balioa indartuko dutenak:

- sortzailea, humanizatzailea, irekia, malgua, dinamikoa, autonomoa eta konektatua.
- hezkuntza-misioa sendotuko duena eta kolektiboa indartuko duena, sinistuta indibiduala ere halaxe indartu daitekeela.
- euskal kultura eta hizkuntza-transmisioak bermatu eta eleaniztasuna eta kulturartekotasuna sustatuko duena. Beraz, pertsona bakoitza eta guztiak kontuan hartuko dituena.

-----00000-----